

UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASLE FUNTZIONARIOA (EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA)

HAUTESKUNDE SINDIKALAK
2018ko abendutik 2019ko martxora

POSTAZKO BOTOA EGITEKO JARRAIPIDEAK

Hautesleren bat bozketaren datan botoa emateko eskubidea duen tokian ez badago, postaz eman ahal izango du botoa, hauteskunde-mahalarai aldez aurretik jakinarazi ondoren. Hauteskundeak deitzen diren dataren hurrengo egunetik bozketa egin baino bost egun lehenagora arte egin beharko du jakinarazpena.

Eskaerak helbide honetara bidaliko dira:

Hauteskunde-Mahai Koordinatzailea
Sindikatuetikiko Harremanetarako Zerbitzua
Hezkuntza Saila
Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Jakinarazpena posta-bulegoen bidez egingo da, betiere gutun-azal irekian aurkezten bada, postako funtzionarioak, ziurtatu aurretik, data eta zigilua jartzeko. Funtzionario horrek nortasun-agiri nazionala aurkeztea exijituko dio interesatuari, haren datu pertsonalak eta bi agurien sinadurak bat datozela egiaztatzeko.

Halaber, behar bezala baimendutako pertsonak egin ahal izango du, hauteslearen izenean, jakinarazpena eta pertsona horrek barorren identitatea eta nor den egiaztatu beharko du notario-ahalorde berezia edo notarioak legitimatutako sinadura duen baimenaren bitartez.

Mahalak jakinarazpena egiten duena hautesleen zerrendan dagoela egiaztatuta, eskaera idatziko du eta boto-paperak eta bozkarena sartu behar duen gutun-azala bidaliko zaizkio.

Hautesleak aukeratzen duen boto-papera bidaltako gutun-azalean sartu eta itxiko du. Halaber, gutun-azal hori, NANaren fotokopiarekin batera, hauteskunde-mahalak posta ziurtatuaren bidez bidaliko duen beste gutun-azal handiago batean sartuko du.

Hauteskunde-korrespondentzia botazioak bukatu ondoren jasotzen bada, ez da botoa zenbatuko eta hauteslea ez da boto-emalletzat joko. Gutun-azala, ireki gabe, suntsituko da. Horrela gertatu dela jasota agertuko da.

Dena den, botoa postaz ematea erabaki duen hauteslea hauteskudearen egunean badago eta berak botoa ematea erabaki badu, Mahalari jakinaraziko dio. Mahalak, botoa eman ondoren, postaz bidali duena entregatuko dio, jaso bada. Kontrako kasuan, jasotzen denean, suntsituko da.